



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAREN OINARRIZKO
LANBIDE HEZKIKETAKO ETA ESKOLATZE
OSAGARRIKO PROGRAMAK ANTOLATU, KUDEATU ETA
GARATZEKO ZERBITZUAREN ZEHARKAKO
KUDEAKETA LEHIAKETA BIDEZ KONTRATATZEKO
XEDAPEN TEKNIKOEN AGIRIA**

A.- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO PROGRAMA

AURRERAKIAK

Debagoieneko Mankomunitateak lanbide hastapeneko ikastaroak antolatu izan ditu azkeneko 28 urteetan. Urte guzti horien ostean programa honek derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulazioa lortu ez dutenen ikasleen lanerako prestakuntza emateko eta lan merkatuan txertatzeko bide egokia izan dela demostratu du.

LOMCE legearen onarpenaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak orain arteko "Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa" "Oinarrizko Lanbide Heziketa" izena duen programagatik ordezkatu du eta ondorioz, OLH berria arautuko duen dekretua idazten ari da. Bertan ezarri beharko diren aldaketak utzi gabe, Jaurlaritzak jarraipena eman nahi dio programari beraren oinarriak eta helburuak aldatu gabe.

ZERTARAKOAK

Oinarrizko Lanbide Heziketako Programak zertarakotzat du hezkuntza akademikoko bidea jarraitzeko eragozpenak dituzten ikasleei kalitateko lan-munduratzeari ahalbidetuko dien oinarrizko eta lanbideko prestakuntza eskaintzea, bai eta Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua eskuratzeko eta irakaskuntza arautuetan ikasketak jarraitzeko aukera emango diona ere, haien gizarteratzeari lagunduz.



HASTAPENAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketako Programak, honako hastapen hauetan oinarritzen dira:

- 1.– Denentzako prestakuntzako eta aukera-berdintasuneko eskubidea, gizarte-bazterkeriari aurre eginez.
- 2.– Eskaintza kalitatekoa, nahikoa eta egonkorra.
- 3.– Irakaskuntza pertsonalizatzea, pertsoneri eta haien aurrerabide-beharrei erantzuna emanez.
- 4.– Ikaskuntzen metodologia integratzaileak, irakaskuntza atsegino eta hurbilago bihurtuz.
- 5.– Ikastetxeen autonomia, erantzukizunak partekatuz Administrazioarekin berarekin, gizarte-eragile eta enpresa-antolakundeekin, erkidego-ingurunearekin, gizarte-zerbitzuekin eta ikasleekin berekin.
- 6.– Kultura-artekotasuna, Euskal Autonomia Erkidegoko esparru eta errealitate gisa.

HELBURUAK

Oinarrizko Lanbide Heziketako Programaren helburuak, honako hauek dira:

1.– Gazteen heldutasun pertsonala laguntzea eta sendotzea, pertsona gisa garapen osoa lortzeko, gizarte kulturantzun eta demokratiko batek eskaintzen dituen aukerez baliatuz.

- Ikasleek gizartean eta lanean egoki moldatzeko beharrezkoak dituzten hainbat ohitura eta jarrera (puntueltasuna, garbitasuna, ordena, etab.) lortzea.
- Aisialdi edo denbora librearen erabilera konstruktibo eta ona egiteko prestatzea.

2.– Oinarrizko prestakuntzaren funtsezko gaitasunetan sakontzea, ikasleei ikaskuntza iraunkor baterako aukerak eskainiz, eta arreta berezia jarriz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari egotziriko mailen lorpenean.

- Ikasleak hainbat tresna eta makina erabiltzen trebatzea, baita hainbat material aplikatzen eta erabiltzen ere.
- Giza harremanak, talde-lana eta lana ongi egiteko ardura sustatzea.
- Erabakiak hartzeko metodoak lortzea eta behar hainbat heldutasun pertsonal lortzea, prestatu, profesionalizatu eta lan-merkatuan sartzeko bakoitzak bere ibilbidea egin dezan.

3.– Lanbide-gaitasunak eskuratzea, kalitateko lan-munduratzeari eta ondoren lanbide-egikaritze gaitua eskaintzeko ikasleei, segurtasuneko baldintzetan.

- Enplegua gogoz bilatzeko oinarrizko jarrerak eta tresnak eskuratzea.
- Ikasleak enpresetako lan-errealitatera hurbiltzea, praktikatan egonaldiak eginez.



IKASLEAK

a).– Oinarrizko Lanbide Heziketako programa 16 eta 17 urteko gazteei zuzendua dago, programa hasten den urteko abenduaren 31a baino lehenago adin hori bete eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortu ez duten gazteei alegia.

b).– Salbuespen gisa, ikasleen eta haien aita-amen –edo, behar izanez gero, legezko tutoreen– adostasunarekin, adin hori 15 urtera jatsi ahal izango da zenbait ikaslerentzat: derrigorrezko Bigarren hezkuntzako bigarren ikasturtea egina dutelarik, hirugarrenera igarotzeko baldintzetan ez egon eta Oinarrizko Hezkuntzan behin errepikatu dutenentzat, alegia. Kasu horietan horretarako ezarritako baldintza akademikoak betetzeaz gain, ikaslearen eta haien aita-amen edo legezko tutoreen onespena beharko da, baita ere gizarte-hezkuntza txosten bat beharko da non ikaslearen hezkuntza, familia eta gizarte inguruneari eta hezkuntza prozeduran emandako orientazioari buruzko zehaztasunak azalduko diren. Ikasle horien ezohiko matrikulazioa oinarri hauetan ezarritako baldintza eta epeetan burutuko da.

PRESTAKUNTZAREN EDUKIAK

Oinarrizko Lanbide Heziketako Programak egitura modularra izango dute. Modulo ezberdinen curriculuak Eusko Jaurlaritzako Prestakuntza eta Aprestazioaren Zuzendaritzak argitaratuko ditu eta ondoko moduloak osatuta izango dira:

- Prestakuntza profesionaleko moduluak. Asteko 19 orduko iraupena izango dute.
- Orientazio eta Tutoretzako moduluak : Ordu bete astean.
- Prestakuntza-modulu orokorrak: Asteko 10 orduko iraupena izango dute

Berariazko lanbide-moduluek lanbide-profil bati erantzun beharko diote, eta 1.mailako lanbide-kualifikazioen zerrenda baten bidez adierazi beharko da, eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren gaitasun-unitateen bidez; horiek Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 7.artikuluan aipatzen dira.

Prestakuntza-modulu orokorrek xede hau izango dute: ikaskuntza iraunkorraren gaitasunak eskuratzen direla bermatzea, oinarrizko gaitasunak gara daitezen bultzatzea eta hezkuntza-sistemako beste maila batzuetara eta/edo lan-alorrera igaro daitezen sustatzea.

Bi eduki-multzo komun hauetan antolatuko dira:

a) Komunikazio eta gizarte Zientzien multzoan, honako irakasgai hauek izango dira:

- 1.- Gaztelania
- 2.- Atzerriko Hizkuntza
- 3.- Gizarte-zientziak
- 4.- Euskara eta Literatura



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

b) Zientzia Aplikatuen multzoan, honako irakasgai hauek izango dira:

- 1.- Matematika, lan-eremuan testuinguru pertsonalari eta ikaskuntzakoari aplikatua.
- 2.- Zientziak, lan-eremuan testuinguru pertsonalari eta ikaskuntzakoari aplikatua.

Programa horien prestakuntza-moduluak garatzeko erabiliko diren pedagogia-irizpideak ikasleen bereizgarrietara egokituko dira eta talde-lana sustatuko dute.

Ikastetxearen heziketa-proiektuari jarraituz, edukien metodologia integratzaileak garatzen dituzten, eta horren ondorioz, programen curriculumetan ezarritako modulu bidezko egitura nabarmen aldatzen duten ikastetxeei dagokienez, prestakuntza-unitateen edo ikaskuntza-egoeren multzo bat gehituko dute urteko programazioan, curriculumean ezarritako eduki guztien eskaintza osoa bermatzeko.

OINARRIZKO ANTOLAKETA ETA TALDEAK ERATZEA

Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa bakoitzari dagokion curriculuma, eta ondorioz garatu beharko dena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zehaztutakoa izango da.

- 1.- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programak bi ikasturtetan zehar garatuko dira. Ikasleen eskola-jardueren iraupena ikasturteetan 33 astekoa izango da. Ikasleek, guztira, 33 irakastordu izango dituzte astean astelehenetik ostiralera bitartean eta 33 aste horietan banatuta. Lan tokietan egingo den prestakuntza edo praktikak astean 35 ordu arteko iraupena eduki ahal izango dute.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuak ezarriko ditu gelak eta tailerrak osatzeko gutxienezko ikasle kopuruak.

METODOLOGIA

Arreta pertsonalizatua eta edukien metodologia integratzaileak erabiltzea, horra hor zein izango den programa horietako irakaskuntza eta ikaskuntzako jarduerak garatzeko oinarria.

Era berean, irakaskuntza-ikaskuntzak jarduera horiek lanbide-profiletik eratoritzen diren prozesu tekniko-produktiboetan oinarrituko dira, eta ikasleak prozesuon ikaskuntzara motibatuko dituen esanguratsutasun batez hornituko.

IRAKASLE-TALDEA

- 1.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak lanbide-profilei dagozkien curriculumetako bakoitzean zehaztuko ditu irakasleek programa hau emateko egiaztatu beharko dituzten berariazko eskakizunak, titulazioari eta lanbide-esperientziari dagokionez, halako eran, non ikasleen hezkuntza-premiei ongien erantzungo dioten baldintzak ziurtatuko diren eta, azken batean, programaren helburuak lortzea ziurtatuko duten.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskakizunak zehazterakoan, prestatzailearen lanbide-profilerako ezarritakoak, hezkuntza-testuinguruaren oinarrizko eskakizunen atalean modulu bakoitzerako argitaraturikoak, hartuko ditu kontuan. Modulu horietako



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

bakoitza, gainera, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko gaitasun-unitate bati atxikirik dago.

ZERBITZUAREN KUDEAKETA

Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziaren Zerbitzuan kokatzen da.

Esleipendunak Programaren zuzendaria izendatuko du, Debagoieneko Mankomunitatearekin solaskide izango dena.

Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziaren arduradunak programaren jarraipena egingo du ikuskatzaile-koordinatzaile lanak burutuz, horretarako izendaturiko programa-zuzendariarekin bilduko da aldizka, programaren garapenaren jarraipena egiteko.

Programaren zuzendaritzak programari buruzko dokumentazioa prestatuko du, eta Debagoieneko Mankomunitateari eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztuko die, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako arduradunarekin ere eztabaidatuz dokumentazio hori.

Esleipendunak izendaturiko irakasle- eta zuzendari-taldeak zuzenean parte hartuko du Debagoieneko Mankomunitatearen Lan Arriskuen Prebentziotarako bultzatutako egitarau eta ekintzak aplikatzen eta garatzen, une bakoitzean onartzen diren laneko segurtasun-arau eta neurriak bete eta betearaziz.

Esleipendunak hasierako eta bukaerako txostenak egingo ditu; hauetan programaren gorabeherak eta egitarauaren dokumentazio ofiziala eta Debagoieneko Mankomunitatearentzat interesgarri izan daitekeena bilduko du.

Ikasleak lortze aldera, esleipendunak informazio-kanpaina egingo du eskualdeko ikastetxeetan eta beste erakunde batzuetan programari ahalik eta zabalkunderik handiena emanez, interesatuei programaren edukiaren berri emanez. Hurrengo ikasturterako aurretiko izen-emateak eta matrikulak egingo ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako Oinarrizko Lanbide Heziketako Programan, behar diren ikasle taldeak osatzen ba dira, honako lau espezialitatetan emango dira ikasketak:

- Mekanizazioko langilea.
- Sukaldeko eta zerbitzuko langilea.
- Instalazio elektrikoko langilea.
- Iturgintzako langilea.

Dena dela, lanbide-profilen eskaintza urtero berrikusi ahal izango da prestakuntza-eskaintza lan-merkatuaren eskarira egokitzeko, beti ere, Eusko Jaurlaritzako baimena badu.

Esleipendunak ondorengo alde hauen kudeaketa egingo du:

a.- Debagoieneko Mankomunitateak edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskatzen dituzten txosten eta agiriak prestatzea.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- b.- Lantokietan praktikak egiteko proiektuak prestatzea, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailean eskatzea bere izenean, eta horien jarraipena egitea.
- c.- Programa gauzatzeko behar diren hornidura eta material suntsigarriak erostea.
- d.- Ikasturtean zehar ikasleak istripuen aurka babestuko dituen aseguru-poliza kontratatzea eta ordaintzea.

ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Aurreko atal horien aplikaziotik datozen betebeharrak guztiez gain, esleipendunak beste obligazio hauek betetzeko ere konpromisoa hartzen du:

- Zerbitzua Agiri honetan eta Administrazio Baldintza Partikularren Agirian ezarritakoaren arabera ematea.
- Irakaskuntza, ekonomia eta administrazio aldetik programa kudeatzeko ondorengo zuzendari- eta administrari-taldea jartzea ezartzen den eskaintzarekin:
 - Programa-zuzendari bat, 1.150 orduko arduraldiaz gutxienez.
 - Administraria edo administrazio-laguntzaile bat, gutxienez 750 orduko arduraldiaz.
- Teknologia irakaskuntza, praktikoa eta teorikoa, emateko ondorengo irakasleak jartzea:
 - Espezialitate bakoitzeko, Lanbide Heziketako irakasle tekniko bat, 1.150 orduko arduraldiaz gutxienez.
 - Bi monitore sozio-laboral, 1.150 orduko arduraldiaz gutxienez.

Dena den, irakasle-taldearen osaera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak une bakoitzean ezartzen dituen arauen arabera izango da.

Aurreikusitakoak baino talde gutxiago osatuko balira, gutxitutako talde bakoitzeko, esleipendunak Lanbide Heziketako irakasle tekniko bat utz dezake jarri gabe, baita, proportzio berean, monitore sozio-laboralen dedikazio-orduak gutxitu ere.

Aurreko puntuetan aipaturiko langileak beren lanbide-prestakuntzaren, esperientziaren, dagokien lana egiteko gaitasunaren eta euskara-mailaren arabera aukeratu beharko ditu eta, hala balegokio, kontratatu. Programaren zuzendari eta monitore sozio-laboral izateko Unibertsitateko diplomatu titulua behar da gutxienez. Lanbide Heziketako irakasle tekniko izateko gutxienez LH2, III. Lanbide Modulua edo Goi Mailako Heziketa Zikloa behar da, edota dagokion arloan kreditaturiko pertsona izatea. Euskaraz eskola teoriko-praktikoak hizkuntza horretan emateko behar hainbat jakin behar da. Horretarako dagokion ziurtagiria aurkeztu behar da Debagoieneko Mankomunitatean.

Urtero, ikasturte bakoitzaren hasieran, sortutako taldeak, ordutegiak eta irakasle bakoitzaren ordu-kopurua aurkeztu behar zaio Debagoieneko Mankomunitateari.

- Prestakuntza-programazioak garatu eta ematea, koherentea eta pedagogikoki egokia den proiektu baten esparruan aurrez eginak, eta ondorengo puntu hauek gogoan izanda:
 - Ilusioa eta konpromisoa jartzea egin beharreko irakaskuntza-lanean.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Irakasle-talde trinkoa eta programaren funtzionamendu onean inplikaturia sortzea.
 - Talde-lanaren aldeko jarrera egokia.
 - Prozesu-metodologiaren aplikazioa.
 - Ikaslea zerbitzuaren bezerotzat hartzea.
 - Etengabeko hobekuntzaren kontzeptua barneratzea.
 - Hezkuntza eta diziplina-metodologia komuna erabiltzea.
 - Irakaskuntza-esperientzia eta erabakiak bateratzeko lana.
 - Ikasleari garbitasuna, ordena, besteenganako eta ikastetxeko tresneriarekiko begirunea sartzea.
 - Ongi egindako lanaren garrantziaz ikaslea mentalizatzea, baita hartutako konpromisoak bete beharrez ere.
 - Jakintza eta prestakuntza teknikoa eguneratzea.
-
- Hezkuntza-programazioa gauzatzeko beharrezko materialen erosketak kudeatzea.
 - Hezkuntza-prozesuaren ebaluazioa, eta programazioa zenbateraino aplikatu eta eman den zenbatu eta balioestea. Hezkuntza-fase bakoitzaren bukaeran ikasle bakoitzak lorturiko helburuen ebaluazioa.
 - Ikas-ekinezko prestakuntza-programan parte hartuko duten ikasleen hautatze, orientatze eta jarraipena egiteko Debagoieneko Mankomunitatearekin lankidetzan jardutea.
 - Lanbide-orientabiderako ekintzak edo ikasleak lan-munduan sartzeko bitartekaritzari buruzko edozein ekintza garatzea.
 - Matrikulak egiten hasi aurretik ikasleak lortzeko informazio-kanpainak egitea.
 - Ikasleak aukeratu eta sailkatzeko probak egitea.
 - Proiektaturiko ekintzei buruz Debagoieneko Mankomunitateak eskatzen dituen azterlan, txosten, balantze edo bestelako dokumentuak egitea.
 - Esleipendunak aurkezturiko hezkuntza-proiektuan zehaztutako eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea.
 - Kontratatik egitarauaren hasieran eta bukaeran deskargu-txostena egingo du zerbitzuaren bilakaeraz.
 - Ikasturtea bukatzean eta kontratuaren epea bukatzerakoan, kontratatik libre eta Mankomunitatearen esku utziko dituen berak erabili dituen lokala eta tresneria, jaso zituen egoera berberan.
 - Kontratuaren epea bukatzean, kontratatik azken txostena emango dio Debagoieneko Mankomunitateari, bertan zehaztutako dituelarik egindako ekintzak eta emandako zerbitzuaren ebaluazioa. Txosten honetan, besteak beste, ondorengo puntu hauek sartu behar dira:
 - Zerbitzuan parte hartu duten ikasle guztien fitxa osoa. Hasierako egoera eta bukaerako egoera, balorazio espezifikoak barne.
 - Izan diren baja edo programa-uzteak eta horien zergatikoak.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

- Zerbitzura esleitutako langileek izan dituzten egutegia eta ordutegia.
 - Gauzaturiko ekintzen ebaluazioa.
 - Interesgarritzat jotzen diren gai guztiak eta Debagoieneko Mankomunitateak eskatzen dizkionak.
-
- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programari buruz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak une bakoitzean ezartzen dituen arauak beteko dira.
 - Lantokietako praktikak planifikatzea, eta horiek egiteko eskaera Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean aurkeztea bere izenean, eta horien jarraipena egitea.

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN BETEBEHARRAK

Aurreko atal horien aplikaziotik sorturiko betebeharrak guztiez gain, Debagoieneko Mankomunitatea ondorengo eginbeharrak betetzera konprometitzen da:

- Programaren onuradun diren ikasleen tipologia eta talde-kopurua zehaztea, eta horiek hautatzeaz arduratzea.
- Zenbait erakunderekin beharrezko hitzarmen edo akordioak izenpetzea Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa gauzatu ahal izateko, eta erakunde horiekin programari buruz izan beharreko harremanez arduratzea.
- Oinarrizko Lanbide Heziketako Programa bukatzen duten ikasleei lan-munduan sartzeko behar duten prestakuntza osatzeko, beste prestakuntza-aukera batzuk eskaintzea eta horretarako beharrezko neurriak eta hitzarmenak garatzea, ahal den neurrian.

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA IRAKASKUNTZEN PROGRAMAZIOA.

1.– Esleipendunak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako curriculumara errespetatuz, OLH programa beren hezkuntza-proiektuan txertatuko eta testuinguruan kokatuko du. Garrantzia hartzen dute programa hauen garapenean, prestakuntzako ikastetxe eta erakundeen erabaki eta jarduketek, honen ingurukoek:

- Irakaskuntza-ikaskuntzako oinarrizko jarduerak ezaugarritzea, hau da, garatzen duen hezkuntza- eta pedagogia-eredua.
- Ikasleen premia askotarikoei buruz hartzen den tratamendua.
- Orientazioko eta tutoretza-ekintzako plana.
- Barne-bizikidetzako araubidea.
- Familielikiko, gizarte-ingurunearekiko eta lan-ingurunearekiko harremanerako jarduketak.

2.– Irakasle-taldeak, ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren testuinguruan eta programa osatzen duten modulu guztietako edukien zeharkakotasunaren tratamendurako beharrezko akordioak txertatuz, edukien urteko programazioa ezarriko du. Programazio horretan, modulu bakoitzerako eta atal sekuentziatuetan, honako hau zehaztuko du:

- Ikasleek lortu beharreko helburuak, gaitasun moduan adieraziak.
- Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera esanguratsuak.
- Ikasleen aurrerabidea ebaluatzeko prozedurak eta irizpideak.



EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK EGINGO DUEN SEGIMENDUA

1.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak egingo du programaren garapenaren segimendua eta programaren helburuen lortze-mailaren segimendua. Ondorio horietarako, programaren garapenaz arduratuko den esleipendunak eskatzen zaizkien datu eta dokumentazio guztiak emango dizkiote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

2.– Dena dela, programen garapenaz arduratuko den esleipendunak, ikasturte bakoitza bukatzean, amaierako Memoria bat egingo du, eta hor, gutxienez, datu hauek erantsiko dira:

- Programa osatu duten ikasleen emaitzei buruzko datu estatistikoak.
- Programaren balioespen orokorra: zailtasunak, beharrianak eta hobekuntza-proposamenak.
- Beste informazio aipagarri batzuk.
- Gizarteratzea eta lan-munduratzeari buruzko datuak, aurreko ikasturteko ikasleei buruzkoa. Hori dela eta, programa batez arduratuko den esleipendunak beharrik egongo da ikaslearen lan-munduratzeari buruzko datuak egitera programa bukatu ondorengo lehenengo urtean zehar.

TUTORETZA, EBALUAZIOA, AKTAK ETA IKASKETA-ZIURTAGIRIAK

Talde bakoitzak tutore bat izango du, eta tutore hori taldearen irakaslea izango da. Ikasleek ikasitakoari buruzko ebaluazioa etengabea eta prestakuntzakoa izango da. Oinarritzako Lanbide Heziketako programan garatzen diren prestakuntza-jarduerak berak oinarri hartuta.

Ikasturtean hiru ebaluazio-saio egingo dira, gutxienez; ebaluazio horien emaitzak ikasleei jakinaraziko zaizkie eta dagokionean, familiari edo tutoreari zein legezko tutoreari, ezarritako helburuak zenbateraino lortu dituzten jakin dezaten. Hezkuntza-indargarria behar duten ikasleei lagundu egingo zaie, ezarritako helburuak lortzeko egin behar dituzten jardueren alorrean.

Taldearen tutorea arduratuko da ebaluazio-saioak zuzentzeaz, bai eta ikasleen aurrerapenari buruzko banakako txostenak egiten direla ziurtatzeaz ere. Programaren baitan antolatutako moduluak ematen dituzten irakasle guztiek hartuko dute parte ebaluazio-saioetan, eta ebaluazio horietan ikasle bakoitzak zer emaitza lortu dituzten adieraziko dute.

Berariazko lanbide-modulu bakoitzean eta prestakuntza-modulu orokor bakoitzean, ebaluazioetako emaitzak 1etik 10era bitarteko terminotan adieraziko dira, eta 5 edo 5etik gora hartuko da kalifikazio positibotzat.

Ikasleek bi deialdi izango dituzte programak bere baitan hartzen dituen modulu etako bakoitza gainditzeko.

Ikasleek lortzen dituzten azken kalifikazioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak duen aplikazio informatikoan erregistratuko dira. Aktak aplikazio informatiko horretatik eskuratuko dira.



EGITURA MODULARRAREN ALDATZEA

Ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren arabera, edukien metodologia integratzaileak garatzen dituzten ikastetxeek, halako eran, non egitura modularra aldatzen duten, prestakuntza-unitate edo ikaskuntzako egoeren multzo bat erantsiko da beren urteko programazioan, curriculumean ezarritako eduki guztien eskaintza osoa bermatuko duena.

B.- ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMA

AURRERAKIAK

175/2007 Dekretuak 31. artikuluan garatzen eta ezartzen du heziketa-prozesuan berriazko laguntza behar duten ikasleentzat egin direla Eskolatze Osagarriko Programak. Programa horiek zuzenean hezkuntza administrazioak ezar ditzake edo hezkuntzan esku hartzen duten beste erakunde eta entitateekin lankidetzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak har ditzakete aldi baterako, Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuei jarraituz, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean hartutako neurriak nahikoak izan ez badira.

Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duten ikastetxe publikoetan egingo dira, edo, bestela, gizarteko edo hezkuntzako esku-hartzea egiten duten erakunde eta entitateetan. Azken erakunde eta entitate horiek programa osagarri horiei buruzko hitzarmen edo itun bat izenpetuko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, berriaz egingo diren deialdien bidez.

Debagoieneko bigarren hezkuntzako zentroetan matrikulatuta dauden 14 eta 16 urte tarteko ikasleak baina eskolan ikasketak jarraitzeko arazo larriak dituztenak dira egitarau honetan parte hartzen dutenak.

ZERTARAKOAK

Heziketa-prozesuan berriazko laguntzaren beharrea dauden ikasleentzat daude eginak Eskolatze Osagarriko Programak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan behar dute programako partaideak, eta, gehienez, 15 urte beteak izan, programaren hasierako urtearen abenduaren 31rako. Ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historiaren nolakotasunean du oinarria, eta programan sartu aurretik agortua egin behar dira, ikasle horiekiko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

HELBURUAK

Programa horiek helburu hau dute: ikasle horiek jarrera baikorrak garatzea heziketa-prozesuarekiko, beren ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizarte-ingurunearekiko, eta, horien bidez, lehenik eta behin, ikasleek arlo pertsonalean eta gizarte-arloan aurrera egitea eta, gerora, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekitea.



PARTAIDEAK

1.- 14 urtez gorako eta 16 urtez beherako ikasleak, Eskolatze Osagarriko Programetan parte hartzeko gai direnak, 1998ko uztailaren 30eko Agindua aldatzen duen 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 14.1 artikuluan zehaztutako baldintzetan. Agindu horrek hezkuntzaren arloko hainbat ekintza arautzen ditu gizarte edo kulturaren aldetik egoera txarrean dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat.

2.- Programa hasten den egunerako 14 urte beteta izan beharko dituzte. 16 urteak kontatzeko dagokion urteko abenduaren 31 hartuko da kontuan.

3.- Eskolatze Osagarriko Programetako ikasleak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proposatuko ditu, lurralde bakoitzeko Pedagogi Berrikuntzako Lurralde-Burutzen bitartez, 1998ko uztailaren 30eko Agindua aldatzen duen 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 16. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Agindu horrek hezkuntzaren arloko hainbat ekintza arautzen ditu gizarte edo kulturaren aldetik egoera txarrean dauden ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleentzat.

IRAKASLEAK

1.- Prestakuntza-arloak emango dituzten irakasleek osatuko dute elkarrekin lan egingo duen prestatzaile taldea. Hona hemen talde horren osaera:

- Oinarrizko lanbide-teknikak irakatsiko dituen Lanbide Heziketako irakasle teknikoa, kasuan kasuko lanbidean aditua izan beharko duena.
- Oinarrizko prestakuntza irakatsiko duen irakasle bat, unibertsitateko diplomatu edo lizentziatua. Komunikazio arloa eta, zientzia eta teknologia arloa.

2.- Halaber, programan jarraipenarekin esku hartzen duten beste profesional batzuek ere (Psikologoak, Gizarte-hezitzaileak, Gizarte-laguntzaileak, Gorputz-hezkuntzako irakaslea) prestatzaile taldean parte hartu ahal izango dute.

Irakasleen kontratuak ikasleen ikasturteak baino sei aste gehiago iraungo du gutxienez. Ikaslerik gabeko aldia (eskolarik gabeko garaia, beraz) ondoko lan hauek egiteko egokia den moduan antolatuko da:

a) Ikasturte-hasiera.

- Ikasleei egiteko elkarrizketak.
- Hasierako ebaluazioa.
- Ikasgelako curriculum-materialak eta programazioa egitea.

b) Ikasturte-amaiera.

- Irakasleen azken ebaluazioa.
- Ebaluazioa eta ikasturteko emaitzak.
- Azken txostena eta txosten ekonomikoa egitea.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko gobernu juntak onartu zuen 2015eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 30ean.
IDAZKARIA**

Izpta.: Belén Txintxurreta